

## EUSKARAREN AURREKONTUAK

Etengabe behera doaz Eusko Jaurlaritzan eta Nafarroako gobernuan euskararen normalkuntz politikarako aurrekontuak. 1993an hasi ziren beherakadak Nafarroan eta 1994an EAEn; 1995eko aurrekontuek beherago jo zuten, eta datozen urtekoek behera jo dute oraindik. Hori zifra absolutuei dagokienez; zer esanik ez zifra erlatiboetan, Jaurlaritzaren eta Nafarroako gobernuaren aurrekontu osoei eta bestelako sailetakoei begiratuz, alegia. Adibidez, 1996rako Jaurlaritzako aurrekontu osoak %5,6 igo diren bitartean, Hizkuntza Politikarenak %1,7 jaitsi dira; KPIren igoera kontuan harturik, ordea, %4,9 jaitsi dira azken horiek. Azken urteotako beherakada hori azaltzeko argigarria da datu hau: 1991n Jaurlaritzaren aurrekontu osoak 476.500 milioikoak ziren eta Hizkuntz politikarenak 3.435 milioikoak (%0,72); 1996rakoetan, ordea, 6.999.358 milioi dira aurrekontu osoak, eta Hizkuntz politikarakoak 3.372 milioi (%0,48).

Horrek guztiak kezka bizia piztu du gizartean eta bereziki euskalgintzan dihardutenen artean; gainera, ez da ikusten —inork ez du argibiderik eman— non geratuko den beherakada hori edota momentu ekonomiko txarreko ondorio hutsa den. Zein politika dago aurrera begira? Aurrekontu orokorren «gerakinak» bakarrik —eta horrelakorik dagoenean bakarrik— emango al zaizkio euskararen normalkuntzaren politikari? Okerrena uste izateko bidea ematen dute azken urteotako datuek eta erakundeen aldetiko argibiderik ezak. Ez omen dago dirurik... Aitzakia merkeegia da, aurreko datuei begiratuta.

Horren aurrean bigarren mailako kontua geratzen da, diru apur horien banaketa nola egiten den edo zenbateraino aldatu den aztertzeak: halako aldizkarietara zenbat eman zaien edo halako proiektuarentzat zenbat aurrikusi den; orain arte apurren bat hartzen zuenak galdu ote duen edota orain arte hartzen ez zuena zerbait hartzen hasi den. Ukatu zaionarentzat edo hartzen duenarentzat izan daiteke hori garrantzizko, baina hizkuntz eta kultur politika osoaren arazoa dago funtsean. Zein leku dauka euskararen normalkuntzak eta euskal kulturaaren sustapenak politika orokorrean? Ezaguna baita, eskaintzen zaion aurrekontuarekin neurtzen dela hori gehienbat. Besterik izango da horien banaketaren bidez nondik bideratzen den normalkuntzarako politika hori.

Funts-funtsean galdera hauxe dugu: ba al dago euskararen normalkuntzarako eta berreskurapenerako benetako plangintzarik Nafarroan nahiz EAEn? Horrelakorik ezean, aurrekontu globalaren gorabeherek

argitasun gutxi emango digute. Euskararen normalkuntzarako politika arrazionalak plangintza orokorra eskatzen du, eta horren arabera aurrekontuak egin eta lehenetsun araberako diruak esleitu.

Euskararen normalkuntzarako plangintza orokorraren ikuspegitik, erakunde publiko guztiek dute beren erantzukizuna, eta ez Hizkuntz Politikarako zuzendaritzak edo sailordetzak bakarrik. Gobernu autonomoetako, diputazioetako eta udaletako sail bakoitzari dagokio bere saileko horrelako plangintza egitea, eta hori betetzeko behar dena bere aurrekontuan ipintzea.

Euskararen aurrekontuetako kopuru adierazgarri bat ekimen sozialak zuzenean diruz lantzeko da: subentzioetarako, alegia. Zalantzarik ez dago horrelako diru-laguntzak beharrezkoak dituztela proiektu eta obra horiek, bereziki gaurko gure egoera soziolinguistikoa. Gehienak kexu dira, horrelako laguntzak eskasegiak direlako. Bestalde, euskalgintzan diharduten talde eta erakunde herritarrek, funtsean militantzian oinarrituek, beren azpiegituren diru-laguntza jaso behar dutela esan behar da, euskalgintzako gorputz sozial osorako eta euskararen aldeko dinamika eta mugimendu sozialerako beharrezkotzat ikusten baitira horiek. Proiektu edo programa jakin batzuetarako laguntza soilez nekez irau dezakete horrelako talde eta erakundeek, proiektu edo programa jakin horiez gain beste hainbat eginkizun betetzekoak dituztenean gizarte mugimenduan. Dinamika hori euskarritzea eta indartzea dagokio —eta ez hitz honek bakarrik— euskararen normalkuntzarako politika egokiari.

Bada, ordea, beste konturik dago hemen. Zuzeneko diru laguntzen edo subentzioen politika ukatu gabe —eta areagotu beharrekoa dela esan ondoren—, bestelako bideak daude askoz gehiago urratu eta lantzekoak, euskararen normalkuntzarako ekimen soziala bultzatzeari eta euskalgintzan eta euskal kulturgintzan diharduten erakundeak eta horien proiektu eta enpresak indartzeari begira. Horietako batzuk aipatzearen: euskal kulturgintzako teknologiaren eta produkzioaren arazoa Industri sailak eta bestelakoek beren alortzat hartzea, enpresa pribatuen esponsorizazioari pizgarriak eskaintzea, euskalgintzarako ematen diren laguntzak zerga-arinketarako kontuan edukitzea, euskalgintzako eta euskal kulturgintzako proiektu eta programa ezberdinetarako beharrezkoak diren azpiegiturek indartzea, sektoreen araberrako bestelako zeharkako laguntza bereziak bideratzea.

Hezkuntzarako edota komunikabideetarako esleitzen diren kopuruak, euskararen normalkuntzarako partidatzat hartu behar direla esan ohi

da inoiz. Hori ez da egia, nahiz eta alor horietan euskara ere erabili; osterantzean esan beharko dugu, edozein industri edo teknologiko proiekturako ematen diren diruak erdararen sustapenerako emanak direla, erdaraz egiten baitira gehien-gehienak. Jaurlaritzaren eta Gobernu foralaren euskararen normalkuntzarako aurrekontuak aztertzean, Hizkuntza Politikarako Sailordearen edo Zuzendaritzaren partida espezifikoak, edo Kultura edo Hezkuntza Sailen edo IVAPen beste nonbaiteko apurrak ari gara kalkulatzeko, besterik ez dagoelako. Gobernuetako Sail guztiek euskararen normalkuntzari dagokion kopurua esleitu diotenean, orduan konplexuagoa izango da horretarako aurrekontu guztien kalkulua egitea. Baina normalagoak izango dira euskararen normalkuntzarako aurrekontuak.